

# **EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK**

## **2022ko OINARRI OROKORRAK**

### **SARRERA**

Getxoko bizitza sozialean ohiko bihurtu dira euskal kulturatik eratorritako zenbait jaialdi. Jaialdi hauek herriko elkarteek antolatzen dituzte eta ikusle, entzule edo eta parte hartzaile kopuru handia izaten dute. Jaialdi hauen helburua getxotarren artean Euskal kulturako adierazpide batzuk ezagutzera ematea da; hala nola Olentzeroa; pertsonaia oso ezaguna eta errotua gaur egun eta neguko solstizioaren etorrerarekin lotzen dena, baita San Juan, Korrika eta abar.

Getxoko hainbat elkarte, erakunde, enpresak... euskara edo euskal kultura sustatzeko ekintzak burutzen dituzte. Getxoko ESEPEk jasotzen duen moduan, Udalak interesa du eragile horiek lokal egokiak izan ditzaten euren jarduerak burutzeko.

Kontuan izanda Getxoko ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoak, ere helburu berdinak bilatzen dituela, hemen diruz-lagunduko direnak ESEPen jasotako helburuak betetzeko ekintza baliagarriak dira.

Oinarri orokor hauen lege-oinarriak ondorengoak dira: Diru-laguntzen inguruko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipatu Legearen Erregelamendua onartzen duena; eta 2004ko abenduaren 30ean egindako Osoko Bilkuran onartutako eta 2005eko urtarrilaren 24ko BAOn argitaratutako Udal Ordenantza.

### **1.- LAGUNTZAREN HELBURUA**

Indarrean dagoen Erabilera Plan Estrategikoan (ESEP) jasotako zenbait helburu lortzeko egokiak diren ekintzak antolatu edo garatzen dituzten hirugarren pertsona edo elkarteak diruz laguntzea.

### **2.- DIRULAGUNTZA ILDOAK**

Honako hauek izango dira dirulaguntza ildoak:

<b>1. ildoak:</b> Getxon, <b>lokal baten</b> gastuetan laguntzea, bai onuradunek bertan <b>euskara edo euskal kultura sustatzen duten ekimenak antolatzeko</b> , bai lokala uzteko hirugarren batzuek antolatu ditzaten bertan aipaturiko ekimenak.
<b>2. ildoak:</b> <b>San Juan suak</b> antolatzean sortzen diren gastuetan laguntzea.
<b>3. ildoak:</b> auzoetako <b>Olentzeroak</b> antolatzean sortzen diren gastuetan laguntzea.
<b>4. ildoak:</b> <b>Korrika 22</b> antolatzean sortzen diren gastuetan laguntzea.
<b>5. ildoak:</b> <b>Euskal Herriko gazteei Getxo</b> eta Getxoren kultur ondarea ezagutzera emateko laguntza.

### **3.- NOR LAGUNDUKO DA**

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute Getxon helbide soziala duten irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko nahiz juridikoek. Jarduera bakoitzerako eskaera bakarra lagunduko da.

### **4.- ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Dirulaguntza eskaera elektronikoki baino ezin izango da egin: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

### **EPEAK**

<b>1. ildoak:</b> Euskara jarduerak antolatzeko lokala	2022ko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 10 eguneko</b> epea.
<b>2. ildoak:</b> San Juan suak	2022ko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 10 eguneko</b> epea.
<b>3. ildoak:</b> auzoetako Olentzeroak	Eskaerak aurkezteko azken eguna <b>2022ko urriaren 16a</b> izango da.

<b>4. ildoa: Korrika 22</b>	2022ko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 10 eguneko</b> epea.
<b>5. ildoa: Euskal Herriko gazteei Getxo</b> eta Getxoren kultur ondarea ezagutzera emateko laguntza.	2022ko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 10 eguneko</b> epea.

#### 5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntzen oinarri hauetarako, gehienez dagoen kreditua **42.900 eurokoa** izango da, eta era honetan banatuko da:

<b>1. ildoa</b>	<b>Lokala</b>	<b>11.200€</b>
<b>2. ildoa</b>	<b>San Juan</b>	<b>1.250€</b>
<b>3. ildoa</b>	<b>Olentzeroak:</b>	<b>20.450€</b>
	) Algortako Olentzeroa	7.650€
	) Areetako Olentzeroa	6.500€
	) Andra Mariko Olentzeroa	3.050€
	) Romoko Olentzeroa	1.875€
	) Neguriko Olentzeroa	1.375€
<b>4. ildoa</b>	<b>Korrika 22</b>	<b>6.000€</b>
<b>5. ildoa</b>	<b>Gazteei Getxo ezagutzera ematea</b>	<b>4.000€</b>

**GUZTIRA: 42.900€**

Dirulaguntzak lehia bidez, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuz emango dira, 7. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta

#### 6.- GUTXIENENKO BALDINTZAK

##### 1. ildoa: KULTUR JARDUERETARAKO LOKALA

Ondoren agertzen diren baldintzak **derrigor bete beharko ditu** 1. ildo honetara aurkeztu den lokalak hurrengo paragrafoan jasotzen den balorazio fasera pasa ahal izateko.

##### Lokalaren gutxieneko ezaugarriak:

- Gutxienez, 100 m<sup>2</sup>ko azalera izatea.
- Intsonorizatua egotea.
- Irisgarritasun baldintzak betetzea.
- Komunak izatea.
- Egoki jarrita eta martxan egotea: argia izatea, berogailua eta audio sistema.
- Karteleria eta iruditeria, gutxienez, euskaraz edo piktogramen bidez adierazia izatea.
- Lokala hirugarrenei uzten zaienean ekitaldiak antolatu ditzaten, uzte hori doakoa izango da.
- Diru-laguntzaren jasotzailea izango da, beti (ekitaldia berak antolatua izan edo hirugarren batzuek antolatua izan) lokalaren kudeaketa egokiaren ardura izango duena (zabaldu, itxi...).

##### Ekitaldi kopurua:

Lokalak, urtean, **gutxienez**, dirulaguntzaren helburuarekin bat datozen **40 ekitaldi** (hitzaldi, kultura emanaldi...) jaso beharko ditu.

##### 5. ildoa: EUSKARAN OINARRITUTAKO GAZTEENTZAKO AISIALDI HEZITZAILEA

- Euskara hizkuntza nagusia izatea ekimenaren garapenean.
- 20 urte arteko pertsonentzat antolatua izatea.
- Gutxienez 15 eguneko iraupena izan beharko dute
- Gutxienez 50 gazteren partehartzea izan beharko da.

- ❑ Euskal Herria, bere kultura eta hizkuntzaren ezagutza bilatzen du ekimen honek; horren barruan, Getxo ezagutzera ematea kanpoko gazteen artean garrantzitsua da; hortaz, ekimenaren bilakaeran Getxok ezinbesteko presentzia izango du: hasieran, amaieran, bere kultur ekimenak ezagutzera ematean, egonaldiren bat izatea...

## 7.- BALORATZEKO IRIZPIDEAK

### 1. ildoak: KULTUR JARDUERETARAKO LOKALA

Eskaerak ebazteko, ondorengo balorazio-irizpideak hartuko dira kontuan:

- ❑ Lokalak 2. mailako jarduera-baimena izatea (Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizunen Saila, 2012ko ekainaren 25eko Agindua): 25 puntu.
- ❑ Lokalaren legezko edukiera: 20 puntu.
  - 40 pertsona artekoa: 5 puntu.
  - 41-90 pertsona artekoa: 10 puntu.
  - goetik gora: 20 puntu.
- ❑ Otorduak prestatzeko eta eskaintzeko aukera izatea: 15 puntu.
- ❑ Gutxieneko ekitaldi kopurutik gora, antolatzen diren ekitaldiak: 10 puntu.
  - 41 ekitalditik 50era: 2 puntu.
  - 51tik 60ra: 4 puntu.
  - 60tik gora: 10 puntu
- ❑ Getxoko Metro geltokietatik lokalera dagoen distantzia (bietako batera; Google hartuko da aintzat): 10 puntu.
  - Oinez, 10 minutu bitartean: 10 puntu.
  - Oinez, 15 mintu bitartean: 5 puntu.
  - Oinez, 20 minutu bitartean: 2 puntu.
- ❑ Tranpaldoa izatea: 10 puntu.
- ❑ Telebista izatea: 5 puntu.
- ❑ Bideo sistema izatea: 5 puntu.

### 2. 3. eta 4. ildoak: SAN JUAN, OLENTZERO ETA KORRIKA 22

Eskaerak ebazteko, ondorengo balorazio-irizpideak hartuko dira kontuan:

- ❑ Eskatzaileak jarduera antolatzen daukan esperientzia: 5 urte edo gehiago 30 puntu.
- ❑ Eskatzaileak antzeko gertaera edo jaiak antolatzen duen esperientzia: 5 puntu.
  - Zenbat eta nolako jarduerak diren.
  - Jai horiek jendetsuak izan dira (200 pertsonatik gora)
- ❑ Aurkeztutako egitaraua: 25 puntu. Honako hauek hartuko dira kontuan:
  - Egitarauak jasotzen dituen jardueren kalitatea.
  - Familia osoarentzako bideratuak izatea.
  - Ekintzen aniztasuna eta kopurua.
  - Berritzaileak izatea.
- ❑ Euskarari eta euskararen erabilerari, aurkeztutako egitarauan jasotzen diren ekintzek dakarkioten onura: 30 puntu.
  - Udalak onartu duen Euskara Planak, ESEPe jasotzen dituen helburuekin bat dator?
  - Ume eta gazteentzako ekintzak euskaraz dira?
  - Euskal kulturari onura dakarkiot?

**5. ildo: EUSKARAN OINARRITUTAKO GAZTEENTZAKO AISIALDI HEZITZAILEA**

<b>Egitaraua:</b> 80 puntu	<b>Proiektuaren aniztasuna:</b> 20 puntu	-Kultur adierazpen ezberdinak ezagutzera emateko egiten den ahalegina. -Ekimenean parte hartzen duten pertsonen aniztasuna; herri ezberdinetakoak, herrialde ezberdinetakoak, kultura ezberdinetakoak. -Aurkezten den programaren aniztasuna: landuko diren gaiak, joratu nahi diren esparruak eta abar. -Beste kultura batzuetako pertsonak eta adierazpenen ezagutza sustatzea.	
	<b>Proiektuaren aberastasuna:</b> 20 puntu	Euskalki eta hizkera ezberdinak ezagutzeko aukerarik izan duten ala ez: 8 puntu	-Euskararen aldaera 1 ezagutzeko aukera: puntu 1. -Euskararen 2-3 aldaera ezagutzeko aukera eskaintzea: 3 puntu. -4 aldaeratik gora ezagutzeko aukera: 8 puntu.
		Euskal kultur ereduak eta eragileekin izandako topaketak, bisitak, interakzioak: 6 puntu	-Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: 1-3 topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: puntu 2. -Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: 4-8 topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: 4 puntu. -Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: gora topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: 6 puntu.
		Ezagutu edo bisitatutako Euskal Herriko herri eta ingurumenen aniztasuna: 6 puntu	-Ezagututako gune fisikoak. 1-3 bisita: puntu 1. -Ezagututako gune fisikoak. 4-8 bisita: 3 puntu. -Ezagututako gune fisikoak. 9 bisita edo gehiago: 6 puntu.
<b>Sustatzen dituen baloreak:</b> <b>aurkeztutako programan zein neurritan landuko diren sustatu nahi diren baloreak:</b> 20 puntu.	-Gazteen parte hartzea sustatzea gizarte bizitzan. -Gizarte kohesioa eta solidaritatea sustatzea gazteen artean. -Berdintasuna sustatzea gazteen artean. -Ingurumenaren errespetua sustatzea. -Ekintzailea, berritzailea, dinamikoa izatea. -Erabiltzaileen autonomia sustatzea. -Balioetan sentsibilizatzea sustatzea.		
<b>Euskal Herriko gazteen artean Getxo ezagutzera ematea:</b> 10 puntu	-Getxon burututako ekintza, topaketak eta abar: 5 puntu. -Getxo gaitzat duten ikastaro, topaketa, elkarrizketa, bisita gidatu edo antzekoak: 5 puntu.		
<b>Ekimenean parte hartzen duten getxotarren kopurua:</b> 10 puntu	-5 getxotarretik behera: 3 puntu. -5 edo 5 getxotar baino gehiago: 7 puntu.		
<b>Parte hartzaile kopurua:</b> 20 puntu	50-99 erabiltzaile: 5 puntu. 100-149 erabiltzaile: 10 puntu. 150etik gora erabiltzaile: 20 puntu.		

Atal bakoitzean, dirulaguntzaren kopuru osoa emango zaio eskaera bakarrari; punturik gehien jasotzen duenari alegia.

Ildo bakoitzaren eskaerak egiteko epea amaitutakoan, eskaerarik aurkeztu ez bada, banatu gabeko diru kopurua beste ildo batzuen ondorengo ebazpenetan banatu ahal izango da, finantzaketa urria gertatu bada. Soberakinak gainontzeko ildoetan hainbanatu egingo dira.

#### 8.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- A. Pertsona juridikoa bada, eskatzen duen pertsonaren NANaren kopia nahiz erakundearen IFKren kopia.
- B. Erakundearen estatutuen fotokopia.
- C. I. eranskina: **DIRULAGUNTZA ESKAERA** inprimakia, kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodeari dagozkion 24 zenbaki) jasota utziz.
- D. II. eranskina: **AURREKONTUA**, Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen eta sarreraren gaineko aurrekontu xehatua. Aurrekontu horretan zehaztuko da, halaber, jarduera horiek egiteko laguntza zein erakunde publiko edo pribaturi eskatu zaion eta nork eman duten, emandako zenbatekoarekin batera.
- E. **Zerga betebeharrak egunean** izatea:  
Eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko udalak ofizioz ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik **Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin**. Eskatzaileak kontsulta hauen guztiak edo zati batzuk ikuskatzearen kontra dagoela adierazi ahal du eskaera orrian bertan. Aurka dagoela adierazten badu eskaera elektronikoan erantsi beharko ditu eskatzen zaizkion dokumentuak.
- F. III. eranskina: **JARDUERA**, egin beharreko jardueraren edo jarduerari buruzko proiektua.
- G. IV. eranskina: **BEHAR TEKNIKOAK**. Hala balegokio:
  - Jarduerak burutzeko Udalarari eskatzen zaizkion azpiegiturak.
  - Ekitaldietako egunetan aparkatzeko baimena: ibilgailuen marka eta matrikulak, zein kaletan aparkatuko duten, egunak eta ordutegiak.

Dokumentuak aldatu ez diren kasuan, eskaera egin aurreko urtean Udalaren eskutik antzeko diru-laguntza jaso duten erakunde eskatzaileek ez dute berriro dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango, baina eskaeran egoera horren berri eman beharko dute.

Eskatzaileei gogorarazi nahi diegu kaleko jardueraren bat egin ahal izateko ESPARRU PUBLIKOETAN EKITALDIAK EGITEKO eskaera erregistratu eta Babes Zibilerari bidali behar dutela. Hala badagokio, dirulaguntza ematea ekitaldia egiteko baimen ematearen menpekoa izango da, hau da, ekitaldia egiteko baimena jasotzen badu jasoko du dirulaguntza, bestela ez.

**COVID 19ak sortutako pandemia egoerak eraginda diruz laguntzen diren jarduera guztiak, uneoro, lerratuko dira Jaurlaritzak hartutako neurrietara eta Getxoko Udaleko arduradunek edozein momentutan egokien erabakitzen dutenera.**

Getxoko Udalak baimendutako jarduerari emandako laguntzak ez du haren antolatzailea denik esan nahi. Hortaz, Getxoko Udala salbuetsirik geratuko da erantzukizun zibileko ondare erreklamaziorik balego, diruz lagundutako jarduera(k) edo ekitaldia(k) modu normalean edo ez normalean egitearen ondorioz. Baleude, SGAEri dagozkion gastuak, beti ere, antolatzaileen kontura izango dira.

#### 9.- DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Jarduera burutu eta hurrengo 45 eguneko epean, dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da:

- A. V. eranskina: burututako egitarauaren **MEMORIA**.
- B. VI. eranskina: **BALANTZE EKONOMIKOA**, sarrerak, eta gastuak biltzen dituen agiria.
- C. Zenbateko osoa ekonomikoki justifikatzeko agiriak; hau da:
  - **Gastuen zerrenda** atalka, ondorengo datuak jasoko dituen: hornitzailea zein den, kontzeptua, kopurua, fakturaren data eta hala badagokio, ordainketa data.
  - **Zerrenda honetaz gain, faktura orijinalak ERE aurkeztu beharko dira** (faktura originalak edo bestelako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan froga-balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak).

- D. **Materiala:** dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta, argitaratutako liburuxka, kartel, liburu, bideo, CD-Rom eta abarren ale bana.

Justifikatzeko aurkeztutako agiri guztiek diru-laguntza emandako ekitaldi ekonomikoko data izango dute.

#### **Ohar garrantzitsuak 1. ildoko diru-laguntzaren justifikazioari buruz:**

##### **1. oharra:**

Jasotzaileek lokalaren alokairu gastuak eta zeharkako gastuak (argindarra, berogailua...) sartu ahal izango dituzte zuriketan, beti ere, diruz lagundu diren jarduera-egunetan sortutakoak badira. Horretarako, onuradunek, zuriketan, adierazi beharko dute argi eta garbi zenbat egunetan burutu diren diru-laguntzaren barruan sartzen diren jarduerak eta jarduera horietan sortutako gastuen proportzioa zein izan den:

- ) Guztira, urte osoko, alokairu eta zeharkako gastuak eurotan.
- ) Diru-laguntzaren barruan sartzen diren jarduerak zenbat egunetan burutu dira?
- ) Proportzio horren arabera gastua eurotan.

##### **2. oharra:**

Lokalaren alokairu gastuak onartuak izan daitezzen, onuradunek alokairu-kontratua aurkeztu beharko dute zuriketaren barruan.

##### **3. oharra:**

Lokala onuradunena denean, baleude, gastu gisa onartuko dira mailegu hipotekarioari dagozkion gastuak, beti ere 1. oharrean zehaztutako proportzioan. Kasu honetan, zuriketaren barruan mailegu hipotekarioaren kontratua aurkeztu beharko du onuradunak.

##### **4. oharra:**

Jasotzaileek justifikatu beharko dute, gutxienez, dirulaguntzaren helburuarekin bat datozen 40 ekitaldi antolatu direla diruz lagundu den lokalean; antolatutako ekitaldiak kopuru horretara iritsiko ez balira, jasotzaileek diru-laguntza zati bat bueltatu beharko dute, antolatu gabe utzi den ekitaldi-kopuruaren proportzioan.

#### **10.- IZAPIDEA ETA EBAZPENA**

- Oinarri orokor hauetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua izango da.
- Aurreko paragrafoan aipaturiko organo instruktoreak proposatuta, ebazpena emateko eskumena Alkateak izango du, beti ere ebazpen horren guztizko kopuruak 30.000 euroak gainditzen ez baditu; hala balitz, ebazpena Tokiko Gobernu Batzak emango du.
- Dirulaguntza emateko proposamena organo kolegiatu batek egingo dio Alkateari. Organo Kolegiatua osatzen duten kideak, ekainaren 26ko 3235/2019 dekretuak jasotzen dituenak dira.
- Ebazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 legearen 21.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ematen ez bada, diru-laguntzaren eskaera ukatutzat hartuko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
- Oinarri hauetan araututako laguntzak emateko edota pertsona edo erakunde onuradunei ordaintzeko, itzultzeko edozein prozedura edo edozein zehapen-prozedura amaitu beharko da; hots, Getxoko Udalak emandako laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidean dagoena

#### **11.- ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Diru-laguntzak jasotako pertsonak edo erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Emandako diru-laguntza garaiz eta forman justifikatu beharra.
2. Aurreikusitako proiektua edo programa egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak bere gain hartzea.

3. Euskara Zerbitzuak egokitzen joz gero, emandako diru-laguntza aplikatzen den egiaztatze eta horren segimendua egiteko jarduerak burutzea.
4. Publizitatean eta komunikatzeko ekintzetan adieraztea proiektuak, egitarauak edota jarduerak Getxoko Udalaren laguntza izan duela.
5. Proiektuaren, programaren edo jardueraren publizitatean eta komunikazioa gutxienez euskaraz izatea. Ele bietara bada, lehentasuna eman behar zaio euskarari tamaina edo kokapenean.
6. Proiektuaren, programaren edo jardueraren publizitatean eta komunikazioan hizkuntza eta irudi sexistak ez erabiltzea.
7. Erakunde kudeatzaileari dagokiona ordaintzea, eskubideak erakunde horrek kudeatzen dituen kasuan, katalogoko obrak erabiltzearen truke.

#### **12.- HARTZAILEAREN EKIMENEZ EGINDAKO ITZULKETA**

Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikuluko xedatutakoaren arabera, onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Udalak emandako diru-laguntza, Udalak eskatu gabe Horretarako, lehenengo, onuradunak berak Udalaren diru-laguntza itzultzeko eskabidea egingo du, zergatiaren berri emanaz. Onuradunak berak eskatuta diru-laguntza itzultzeko, ordainketa-gutun/errezibo bat erabiliko da. Ordainketa-gutun/errezibo hori Udalak luzatuko dio onuradunari

#### **13.- DATU PERTSONALEN BABESA**

Esleipena jaso duen elkarteak eta beretzat lanean diharduten pertsonak, indarrean dagoen araudia errespetatuko dute eta abenduaren 5eko 3/2008 Lege organikoak lantzen duen isilpekotasuna gordeko dute.

Esleipena jaso duen elkarte edo erakundea behartuta dago diru-laguntza hauetarako behar diren datuen tratamenduan segurtasun neurriak indarrean jartzera bai erabilitako ekipoetan, bai lokaletan, bai sistemetan eta baita programetarako dituen zentroetan ere.

#### **14.- ZEHAPENAK**

Ezarritakoak betetzen ez diren kasuan, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzen inguruko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipatu Legearen Erregelamendua onartzen duena; eta 2004ko abenduaren 30ean egindako Osoko Bilkuran onartutako eta 2005eko urtarrilaren 24ko BAO n argitaratutako Udal Ordenantza.